



Datorren irailaren 27an Franko diktadorearen azkeneko fusilamenduen 40. urteurrena izango da. Bidegabekeria haren bitartez, bere epai betearazle beltza itxi, eta behin betiko isolamendua eta nazioarteko gaitzespena merezi izan zuen diktadoreak. Gure ustez, 40. urteurrena dela eta, ezinbestekoa da Espainiako herrien askatasunaren alde borrokatu eta euren bizitza eman zuten bost gazte haiei gure esker ona agertzea, baita oroitzea eta omentzea ere.

Garai hartako memoria berreskuratu behar da zuzen gogoratzeko. Diktadorearen azkeneko urteak ez ziren agonia ahula izan. Ikara eta errepresio bortitzeko garaia izan zen hura. Estatuko aparatuek bere armak kargatu eta erabili zituen: ura eskatzeagatik edo soldatak aldarrikatzeagatik manifestatzaileak hil ziren, setio-egoerak dekretatu ziren, garrotez aplikatutako heriotz-zigorra agertu zen berriro, milaka atxilotu izan ziren, torturatzaileak Erregimenaren heroi ospetsuak ziren...

Garai hartako memoria berreskuratu behar da justiziaz tratatzeko. Diktadura frankistaren aurka borrokatzeak heriotzari aurrez aurre begiratzea esan nahi zuen. Haren aurka egiten zutenek ez zuten inolako babesik. Bost gazte hauek: Xosé Humberto Baena Alonsok, José Luis Sánchez Bravok, Ramón García Sanzek, Ángel Otaeguik, eta Juan Paredes, Txikik, hori bazekiten, eta hala eta guztiz ere, ez zuten amoren eman nahi izan. Horregatik, Xose Humberto Baenak bere agur-eskutitza izugarrizko lasaitasunez hasi ahal izan zuen: "Aita, ama: bihar fusilatuko naute...", edo Juan Paredes Manotek, Txikik, bere anai-arreba gazteei, argazki baten atzekaldean, bere epitafioan agertzen den "Che"ren esaldi hau eskaini zien:

"bihar, hiltzen nautenean, niregatik negarrik ez egin. Ez naiz inoiz lurpean egongo, askatasun haizea naiz eta".

Garai hartako memoria berreskuratu behar da, oraindik zai dagoen justizia asetzeko. Munduak Franco kondenatu zuen. Baina oraindik ere, legez kontrako kondena haiek ez dituzte berraztertu, ezta ezeztatu ere, eta Erregimen anker baten izenean sinatu zituztenek ez dira horien erantzule izan. Beste gauza askorekin gertatu den bezala.

Irailaren 27a eta bost gazte haiek frankismoaren azkenaldiaren borrokatzaile guztien ordezkari dira. Zorionez, haietako asko oraindik bizirik daude, eta gure herrialdean askatasunaren bidea ireki dute, baita larrutik ordaindu ere. Egun hartan, Francok bere amaiera zigilatu zuen, isolatua eta esperpentikoa.

Horregatik guztiagatik, antifasista independente talde batek, eragile aske bat eratu dute. Euren artean, gerra-kontseiluak hiltzera zigortutakoak daude, baita eraildako gazte haien senide eta lagunak ere. Halaber, abokatuak, artistak, kazetariak etabar. Euren helburua, memoria eta omenaldi ekitaldi publikoa antolatzea Madrilan, irailaren 26an, larunbata.

"Nicolás Guerendiain" Irungo Elkarte Errepublikarrak ekitaldi horrekin bat egin, eta Irunen omenaldi hori babesteko ihardunaldiak antolatu ditu, irailaren 27an eta urriaren 1ean.

Irailaren 27a

"Septiembre del 75"-ren emanaldia.

Non: Kabigorri Ateneoan.

Ordua: 19:30ean.

Urriaren 1a

Omenaldi ekitaldia. Mikel Paredes Manotek eta Manuel Blanco Chivitek hartuko dute parte.

Non: Ospitale Zaharreko Hitzaldi Aretoan.

Ordua: 19:30ean.